

**UDALARI EGINDAKO PROPOSAMENAK
AZTARNA EKOLOGIKOA: 2018-2019 Ikasturtea**

BIZIKLETAK ETA BIDEGORRIAK

Proposamena: Bizikleta elektrikoaren erabilerari dagokionez, DBizi zerbitzua eskoletan ezagutarazi, Mugirekin ordaintzeko aukera izan (eta ahal den neurrian merketu) eta bizikleta estazio gehiago jarri (Aieten 5 ikastetxe daude eta faltan sumatzen da).

Erantzuna: Donostiako Udalak bizikleta publikoaren sistema berri bat ezarriko du hirian (gaur egun lizitazio fasean dago), bizikleta mekaniko eta elektrikoak izango ditu, eta baita geltoki eta bizikleta kopuru handiagoa ere. Sistema berri honek ikusgarritasuna ematea, kalitatea hobetzea eta hiriko gune gehiagotara iristea ahalbidetuko du. Oraingoz, Mugi txartelarekin ordaintzeko aukerarik ez da planteatzen, baina egun txartel hori identifikazio gisa erabil daiteke. Hala ere, sistema berrian identifikazioa eta ordainketa mugikorrerako aplikazio baten bidez egitea aurreikusten da.

Bestalde, une honetan, Aiete pasealekuan bizikleta lotura eraikitzen ari dira, duela gutxi martxan jarritako igogailuen eta Oriamendi pasealekua (Jesuitinen bidegurutzera) hasten den biribilgunearen artean. Bizikleta publikoaren sistemaren lizitazio berrian geltokiren bat sartzeko tarte horretan.

Proposamena: Bidegorriei dagokienez, bidegorriak eskola guztietara iristea, Egian eta Bidebietan esaterako gabezia sumatzen da. Bidegorrien asfalto matxuratzen denean azkar konpondu eta ikastetxe guztietan bizikletentzako parkingak jarri, bizikletaz bertara gerturatu ahal izateko.

Erantzuna: Donostiako Udala bizikleta sarea bizikletaz joan-etorri gehien egiten den lekuetara irits dadin saiatzen ari da; besteak beste, ikastetxeetara. Horrela, bizikleta erabiltzen duten pertsonak segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan iritsi ahal izango dira leku horietara, bizikleta-konexio eskusiboaren bidez edo trafikoa baretutako kaleen bidez. Egia auzoaren kasuan, bizikleta-konexio bat dago Egia kalean, hiriaren erdigunea eta Loiola auzoa lotzen dituen, eta Egia auzoko goiko aldearekin lotzeko, trafikoa baretutako kaleak erabiltzen dira, hala nola Ametzagaina kalea (igotzeko noranzkoan) eta Karmengo Ama kalea (jaisteko norantz). Egiako goiko aldea Intxaurrondokoarekin lotzeko, Gabriel Aresti pasealekuaren bizikleta lotura eskusiboa dago. Bidebieta auzoan, gaur egun Herrera eta Bidebieta arteko bizikleta lotura egiteko proiektua lantzen ari dira, horrela, Bidebietari hiriko bizikleta sarearekin lotura emateko.

Bestalde, 2020an, Donostiako Udaleko Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak bizikleta-konexioen zoladuren egoera aztertuko du. Azkenik, ikastetxeetako aparkalekuei dagokienez, ikastetxeak beraiek dira horiek sortutako eskariari aurre egiteko ardura dutenak. Horregatik, proposamen hau ikastetxeak kudeatzen dituzten zuzendaritzei zuzendu beharko litzaieke.

AUTOBUSAK eta GARRAIO PUBLIKOA

Proposamena: Garraio publikoari dagokionez, merkeagoa eta gazteentzat doan izatea nahi dugu; autobus lineak gehitzea, auzo batetik edozein auzotara joatea ahalbideratzen dutenak eta kotxeak hirira ez sartzea proposatzen dugu, garraio publikoa sustatzeko eta kale gehiago peatonalizatzeko aukera izanez.

Erantzuna: Gaur egun bonu gazte bat dago, eta erabilera mailaren 3. tartetik aurrera (51. bidaiatik aurrera), gazteek (6 eta 25 urte artekoak) bidaiak dohainik dituzte.

Proposamena: Autobusei dagokienez, autobus guztiak elektrikoak edo hibridoak izatea nahiko genuke

Erantzuna: Dbusen 12 metroko ibilgailuen %50 elektriko-hibridoa da jada, Euskadiko ingurumena gehien errespetatzen duen flota da, eta erreferentea Europan. Hala ere, datozen lau urteetan 12 metroko flotaren %90 elektriko-hibridoa izango dela aurreikusi dute. Gainera, 18 metroko flotari autobus hibrido berriak gehitzen hasi dira, eta, horrela, egungo diesel autobusak pixkanaka ordezkatzeko joango dira. Era berean, aurreikusita dago 17 Gros-Amara-Miramon linea elektrifikatzea, %100 elektrikoak diren 7 autobus artikulaturekin. Azken batean, flota osoaren (12 m. eta 18 m. autobusak + mikrobusak) %30 ekologikoa da gaur egun, eta 3-4 urteetan % 70 izango da.

LURZORUA

Proposamena: Donostia ekohiria, hau da, hiri jasangarria izatea nahi dugu: horretarako gure udalak Europako hiri berdeak bisitatu eta ideiak ekartzea nahiko genuke. Proposamen interesgarria da, auzo bakoitzean ingurunea baloratuko duen eko-ordezkaritza taldea ezartzea eta lege edo araudia sortzea eta betetzen ez duenari isunak jartzea (nahiz pertsona nahiz lantegia izan).

Erantzuna: Beste hiri batzuetako eko-auzoen esperientzia ugari aztertu dira, eta, horregatik, autokontsumorako baratze ekologikoen, konpostaje komuntarioko

puntuen, barrutiko berokuntzaren, oinezkoen eta abarren esperientziak diseinatzeko ari dira. Interesgarria da auzo bakoitzeko eko-ordezkarien taldeak egoteko proposamena, baina, egia esan, horrelako proiektuetan parte hartzea nahiko txikia izaten da. Horregatik, egokiagozat jotzen da auzo-elkarteekin zuzenean lan egitea, garatuko diren proiektuak proposatzeko eta haiekin kontrastatzeko.

Ordenantzari dagokionez, gaur egun Hondakinen Ordenantza, Kutsadura akustikoaren Ordenantza eta Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikoaren Ordenantza eguneratzen ari dira. Ordenantza horiez gain, Biohondakinei buruzko bat eta Saneamendu Sarera isurtzeari buruzko araudi bat ere daude.

Proposamena: Parkeei dagokienez, udalak inbertsio gehiago egitea natur-parkeetan, eta hirian zehar barreiatuta dauden parkeen erabilera bultzatzea nahiko genuke. Parke urbanizatuak sortzea baino hobe, baso itxurako parkeak sortzea hirian zehar (hauek baitira Donostiako gas xurgatzaile nagusienak)

Erantzuna: Donostia natur-aberastasun handiko gunek dituen hiria da, hala nola Uliako itsaslabarrak (Kontserbazio Bereziko Eremua) eta Aiako Harriko lursailak (Parke Naturala). Gainera, udalerritik kanpo bada ere, Udala Artikutzaren jabea da. Kontserbazio Bereziko Eremua da eta Donostiako udalerraren erdiaren antzeko azalera du. Kokaleku horietan biodibertsitatea babesteko eta sustatzeko jarduera ugari garatzen dira. Gainera, galderak proposatzen duen ildotik, figura horiek babesten ez dituzten eremuetan biodibertsitatea hobetzeko esku-hartzeak ere garatzen ari dira, hala nola Igeldo/Mendizorrotzen.

Horregatik, erabat ados gaude ingurune naturalean inbertitzen jarraitzeko beharrezkin, dauden basoak eta habitatak babestuz eta eremu gehiagoren ingurumen-hobekuntza bultzatuz.

HONDAKINAK

Proposamena: Kaleko edukiontzien inguruan, arropa, pila eta olio jasotzeko edukiontziak ugaritzea nahi dugu. Edukiontzi horiak ikastetxe inguruetan jartzea, gabezi berezia sentitzen dugu Nuestra Señora de Aranzazu ikastetxe ondoan. Edukiontziak maiztasun gehiagorik garbitu, askotan oso zikinak daude eta arazo bat dugu edukiontzietako zuloen altuerarekin, batzuetan ez gara iristen.

Erantzuna: Hirian dauden edukiontziak jartzeko eta kokatzeko, lehenik premien azterketa zehatz eta erreala egin behar da. Horiek handitzeak, azterketa hori egin gabe, ez du haren eraginkortasuna ziurtatzen, eta justifikatu gabeko eragin negatibo bat sor dezake, inpaktu bisual garrantzitsu bat, espazioak okupatzea

beste erabilera batzuetarako erabilera eragotziz, edo bateraezintasuna, erakusleihoeekin, tabernetako terrazekin, garajeekin eta abarrekin. Donostiako Udalak abian jartzen dituen edukiontzi-planen ondorioz edukiontziak zentzuz jartzen dira, ikastetxeen inguruko edukiontzi horiak barne. Hori dela eta, zentro horiek bide publikoko edukiontziak erabili behar dituzte, salbu eta zentroa isolatuta dagoenean eta erabiltzeko edukiontzirik hurbil ez dutenean.

Proposamena: Kaleetan dauden beste zakarrontzi txikien kudeaketa ere hobetzea nahiko genuke, kaleko zaborrontzi txiki guztietan zaborra bereiztea posible eginez, hondartzetako zigarroentzako zakarrontziak jarriz, eta eskoletako patioan ere koloretako zakarrontzi txikiak nahi ditugu.

Erantzuna: Gaika bereizitako zaborrontzi txikiak aspalditik ari dira jartzen Donostian, ez oso emaitza positiboekin, orain arte herritarrek ez baitute elkarlanerako jarrerarik erakutsi. Eta bide publikoa gaika biltzeko aukera duten zaborrontzietan mota guztietako hondakin nahastuak jasotzen dira, eta horrek eragotzi egiten du ondoren birziklatzea; gainera, horiek jartzeak kostu handia dakar, eta, beraz ez da eraginkorra. Hala eta guztiz ere, hondakinak bereizita biltzeko paperontzi mota horiek jartzen jarraituko da, baina kokapenak eta horien erabilera ondo aztertuz eta kontzientziazio-kanpaina espezifikoekin bat eginez.

Bestalde, Donostiako Udalak ez du aurreikusten hondartzetan hautsontziak banatzeko kanpainarik egitea; izan ere, kanpaina horiek aisialdirako gune bat izan behar dute, eta bertan, erretzen ez duten pertsonak errespetatu behar dira, eta, beraz, ez da ohitura hori sustatu behar, eta are gutxiago zigarrokinak hondarrearantz uztea.

Azkenik, ikastetxeetako patioetan edukiontziak jartzea Donostiako Udaleko Hezkuntza Arloaren edo ikastetxeen beren eskumena da.

URA

Proposamena: Hiriko iturrien kopurua handitzea (Kontxako pasealekuan adibidez) eta beren kontsumoa kontrolatzeko gailu mugatzaileak jartzea, sentsoreak jarriz edo automatikoki ixten diren sistemak jarriz. Eskoletako iturriak ere berritu, oso zaharrak baitira eta ur asko galtzen baitute.

Erantzuna: Gaur egun 400 iturri inguru daude hiriko auzo ezberdinetan banatuta, gune bakoitzean dauden beharren eta ura banatzeko sareen arabera. Kontxako pasealekuan, azken iturria (Erdialde-Antigua norabidean) Clara Campoamor plazan dago. Pasealekuaren gainerako zatian (Antiguako tuneleraino) ez dago iturri gehiagorik instalatuta, dauden hodiak hornidura-sare orokorrak direlako eta

hartuneak ezin direlako horietara konektatu (matxurak saihesteko). Iturri guztiek sakagailu bidez ixteko sistema erraza dute. Mantentzeko sistemarik eraginkorrena eta merkeena da, nahiz eta gaizki erabiltzeak trabak sor ditzakeen bertan.

Bestalde, ikastetxe publikoetan jarritako iturriak berritzeko eta konpontzeko, eskaera bat egin behar zaio Mantentze eta Hiri Zerbitzuetako Sailari – Eraikinak –, zehazki adierazita zein iturri den eta non instalatuta dagoen. Horrela, lehenbailehen konpondu ahal izango da.

Proposamena: Hirian dauden iturri apaingarriak une oro piztuta ez edukitzea, nahiz eta zirkuituak itxiak izan.

Erantzuna: Badakigu hiriko iturri apaingarriak mantentzeak energia eta mantenu gastua dakarrela, eta hori minimizatzen saiatzen gara, nahiz eta uraren gastua ez den existitzen, zirkuitu itxia baita. Hala ere, komeni da aipatzea iturri horiek ez dutela soilik zeregin estetikoa betetzen, herritarrei, eta baita hiriko faunari ere egiten dizkieten onura horiek kontuan hartu behar baitira, hala nola giroa freskatzea, giro akustiko atsegina sortzea edo oinezkoen estresa murriztea.

KANPAINAK HERRITARRENTZAT

Proposamena: Herritarrentzat kanpainak diseinatu alor ezberdinetan, beren aztarna ekologikoa murriztu dadin:

- Hondakinen inguruan, gaikako bilketa bultzatzeko.
- Izan ere, Donostiako gaikako bilketa % 37 da orain (2018. urteko datuak), eta, beraz, lehentasunezkoa da ehuneko hori handitzea. Horretarako, Ingurumen Saila ematen ari den informazioaz gain, kanpaina zehatz bat prestatzen ari da, herritarren artean hondakinen bereizketa sustatzeko. Kanpaina hori 2019. urtearen amaieran jarriko da martxan, eta 2020. urtean zehar luzatuko da. Herritarrek aurrekontu parte-hartzaileen proiektuan hautatutako kontu-sailtako bat da.
- Bertako produktuak kontsumitu ditzaten, kontsumo jasangarria bultzatuz
- Ingurumen Sailak, Donostiako Sustapenarekin eta Cristina Enea Fundazioarekin lankidetzan, helburu zehatz hori bilatzen duen Elikadura Estrategia bat prestatu du hiriarentzat.
- Energia kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarria merkaturatzen duten konpainien inguruko kanpainak egin, energia berriztagarriak bultzatzeko diru-laguntzak eman.
- Partekatzen dugun helburu bat bada ere, legez Donostiako Udalak, ezin du lehentasunik erakutsi, ezta gutxiago publikatu ere, konpainia pribatu baten edo bestearen mesedetan.

- Oihalezko poltsak eta degradagarriak erabil ditzaten animatuz
- Ingurumen Saila aktiboki ari da lankidetzan beste gizarte-kolektibo batzuekin, poltsa berrerabilgarriak erabiltzeko; izan ere, iraunkortasunaren ikuspegitik, askoz eraginkorragoak dira berotegi-efektuko gas isurketen aurkako borrokan, poltsa biodegradagarriak baino, eta, batez ere, erabilera bakarreko plastikozko poltsak baino.
- Hondartzako dutxak egoki erabiltzeko zaintza egitea eta itsasora gauzak ez botatzeko sentsibilizazio kanpainak egitea.
Hiriko hondartzak Emas sistemaren pean kudeatzen dira, eta horrek aukera ematen du baliabideen kudeaketa askoz eraginkorragoa egiteko, iturrietako eta dutxetako ur geza barne. Hala ere, alderdi horretan komunikazioa eta sentsibilizazioa hobetu beharrekin bat gatoz.

Proposamena: Donostiako baserriak diruz lagundu, sortzen diren produktuak saltzeko aukerak emanez.

Erantzuna: Hori da, hain zuzen ere, Bretxako merkatuan egin den berrurbanizazio berriaren helburuetako bat, horrela, hurbileko eta sasoiko produktuen saltzaileen baldintzak hobetu ahal izateko, eta horri heltzen dio hiriko Elikadura Estrategia Propioak.

ENERGIA eta KONTSUMO ENERGETIKOA

Proposamena: Argindarra %100 berriztagarria izango dela ziurtatuko duen argi-konpainia batekin aldatu udal kontratua (Goener, Holaluz...) eta ahal den kasuetan udal eraikinetan eguzki panelak jarri.

Erantzuna: Gaur egun erosten den energia elektrikoa ziurtatua da, %100 berriztagarria. Donostiako Udalak 15 urte daramatza produkzio fotovoltaikorako ekipoak instalatzen, eta azken bi urte hauetan eta hurrengoetan, auto-kontsumoaren modalitatean, jarraitu nahi den lan-ildo da.

Proposamena: Donostian dauden farola guztietan led sistema ipini.

Erantzuna: Hiriko bide publikoan egiten diren farolen instalazio berri guztiek dagoeneko Led lamparak erabiltzen dituzte, eta pixkanaka, daudenak Led ekipoekin ordezkatzuz joango dira.

PROPUESTAS REALIZADAS AL AYUNTAMIENTO HUELLA ECOLÓGICA: Curso 2018/2019

BICICLETAS Y RED DE BIDEGORRIS

Propuesta: en cuanto al uso de bicicletas eléctricas, dar a conocer el servicio de DBIZI, tener la oportunidad de pagar con la tarjeta MUGI (abaratando el precio en lo posible) y poner más estaciones de bicicletas (en Aiete hay 5 colegios y se nota la escasez de los mismos)

Respuesta: el Ayuntamiento de San Sebastián va a implantar un nuevo sistema de bicicleta pública para la ciudad (actualmente en fase de licitación), que incluirá bicicletas mecánicas y eléctricas, y un mayor número de estaciones y bicicletas. Esto permitirá dar visibilidad, mejorar la calidad y llegar a más zonas de la ciudad con este nuevo sistema. De momento, no se plantea la posibilidad de pagar con la tarjeta MUGI, pero actualmente se permite utilizar esta tarjeta como modo de identificación. No obstante, en el nuevo sistema sí se contempla que la identificación y el pago se realice mediante aplicación móvil.

Por otra parte, en estos momentos, se está construyendo la conexión ciclista en el Paseo de Aiete, entre los ascensores recientemente puestos en marcha y la rotonda donde arranca el Paseo de Oriamendi (Rotonda de Jesuitinas). En la nueva licitación del sistema de bicicleta pública se incluye alguna estación en este tramo.

Propuesta: en cuanto a red de bidegorris, nos gustaría que llegara a todos los centros escolares de Donostia, en Egia y Bidebieta no existe la red. Cuando se estropee el asfalto de la red, arreglarlo lo antes posible y colocar parking de bicis en todos los centros escolares, para poder llegar hasta allí en bicicleta.

Respuesta: desde el Ayuntamiento de San Sebastián se intenta que la red ciclista llegue a la mayoría de los lugares donde se produce el mayor uso de desplazamientos en bicicleta, entre los que se encuentran los centros escolares, de tal manera que las personas usuarias de la bicicleta puedan acceder en condiciones de seguridad y comodidad a estos puntos, bien mediante conexiones ciclistas exclusivas o por calles calmadas de tráfico. En el caso de Egia, existe una conexión ciclista que conecta el centro de la ciudad con el Barrio de Loiola a través de la Calle Egia y la conexión con la zona alta del barrio de Egia se realiza mediante calles calmadas de tráfico, como la Calle Ametzagaina (dirección subida) y la Calle Virgen del Carmen (dirección de bajada). La conexión de la

zona alta de Egia con Intxaurreondo se realiza por la conexión ciclista exclusiva del Paseo Gabriel Aresti. En relación con el barrio de Bidebieta, en la actualidad se está trabajando en el proyecto de conexión ciclista entre la Herrera y Bidebieta, de tal manera que se dé conexión a Bidebieta con la red ciclista de la ciudad.

Por otra parte, en 2020 se va a realizar un trabajo de análisis del estado de los pavimentos de las conexiones ciclistas por parte de la Dirección de Mantenimiento y Servicios Urbanos del Ayuntamiento de San Sebastián. Y por último, en cuanto a los aparcabicis en los centros escolares, son los propios centros escolares los responsables de hacer frente a la demanda generada por estos. Es por ello que esta solicitud debería ir dirigida a las direcciones que gestionan los centros escolares.

AUTOBUSES Y TRANSPORTE PÚBLICO

Propuesta: en cuanto al transporte público, queremos que se abarate y que sea gratuito para los jóvenes; queremos que haya más líneas de bus que conecten diferentes barrios y que los coches no entren al centro de la ciudad, fomentando así el transporte público y dando opción a peatonalizar más calles.

Respuesta: actualmente existe un bono joven, y desde abril del 2019, a partir del 3º tramo (a partir del viaje 51), los jóvenes (entre 6 y 25 años) viajan gratis.

Propuesta: en cuanto a los autobuses, pedimos que todos los autobuses sean eléctricos híbridos.

Respuesta: el 50% de los vehículos de 12 metros de Dbus ya es eléctrico-híbrida, constituyendo la flota más respetuosa con el medio ambiente de Euskadi, y un referente a nivel europeo. No obstante, se prevé que en los próximos cuatro años el 90% de la flota de 12 metros sea eléctrico-híbrida. Además, se ha iniciado la incorporación de nuevos autobuses de tipo híbrido a la flota de 18 metros, de manera que se irán sustituyendo progresivamente los autobuses diésel actuales. Asimismo, está prevista la electrificación de la línea 17 Gros-Amara-Miramón con 7 autobuses articulados 100% eléctricos. En definitiva, en la flota total (buses 12 m + 18 m + microbuses) el 30% de la flota es actualmente ecológica y en 3-4 años será el 70%.

SUELO

Propuesta: queremos que Donostia sea una eco-ciudad, es decir, una ciudad sostenible. Para ello, proponemos visitar ciudades verdes europeas y traer ideas para intentar implantarlas en la ciudad. Sería una propuesta interesante, crear en cada barrio un grupo de eco-representantes que valoren la sostenibilidad del barrio y crear una ley u ordenanza a cumplir y multar a todo aquel que no la cumpla (sin diferenciar si es ciudadano o empresa).

Respuesta: se han estudiado numerosas experiencias de eco-barrios de otras ciudades y por ello, se están diseñando experiencias de huertas ecológicas de auto-consumo, puntos de compostaje comunitario, calefacción de distrito, peatonalizaciones, etc. La propuesta de que haya grupos de eco-representantes por barrio es interesante, pero la realidad es que la participación en este tipo de proyectos suele ser relativamente baja. Por ello, se estima más conveniente trabajar directamente con asociaciones de vecinos para proponer y contrastar con ellos los proyectos que se vayan a desarrollar.

En cuanto a la Ordenanza, en la actualidad se está procediendo a la actualización de la Ordenanza de Residuos, la de Contaminación Acústica y la de Eficiencia Energética en Edificación. Además de estas ordenanzas, se cuenta con una sobre Biorresiduos y un Reglamento sobre vertido a la red de Saneamiento.

Propuesta: en cuanto a los parques de la ciudad, nos gustaría que hubiera mayor inversión en los parques naturales y creemos que hay que impulsar más el uso de los parques de la ciudad. Desde nuestro punto de vista, es más interesante crear parques tipo bosque que parques urbanizados, ya que los primeros son los encargados de absorber los gases que emite la ciudad.

Respuesta: San Sebastián es una ciudad que tiene enclaves de gran riqueza naturalística tales como los acantilados de Ulia (Zona de Especial Conservación) y terrenos en Aiako Harria (Parque Natural). Además, aunque fuera del municipio, el Ayuntamiento es propietario de Artikutza, que es también Zona de Especial Conservación y que tiene una superficie similar a la mitad del término municipal de San Sebastián. En estos enclaves se desarrollan numerosas actuaciones de protección y fomento de la biodiversidad. Además, en la línea que propone la pregunta, se están también desarrollando actuaciones para mejorar la biodiversidad en ámbitos no protegidos por estas figuras, como puede ser Igeldo/Mendizorrotz.

Por ello, estamos totalmente de acuerdo en que hay que seguir invirtiendo en el entorno natural, protegiendo los bosques y hábitats existentes e impulsando la mejora ambiental de más áreas.

RESIDUOS

Propuesta: en cuanto a los contenedores de la vía pública, solicitamos más contenedores de ropa, pilas y aceite. Queremos más contenedores amarillos en los alrededores de los centros escolares, no hay contenedor amarillo cerca del colegio Nuestra Señora de Aranzazu. Solicitamos mayor frecuencia de limpieza de los contenedores ya que a menudo se encuentran muy sucios y tenemos que decir que tenemos un problema con la altura de los agujeros de los contenedores, ¡a veces no llegamos!

Respuesta: la colocación y ubicación de contenedores de todas las fracciones en la ciudad tiene que proceder de un estudio detallado y real de las necesidades. Su aumento, sin haber procedido a ese estudio, no asegura su eficacia, pudiendo crear un efecto negativo no justificado como un impacto visual importante, ocupación de espacios impidiendo que se puedan dedicar a otros usos, o incompatibilidad con escaparates, terrazas de bares, garajes, etc. Los planes de contenerización que el Ayuntamiento de San Sebastián va poniendo en marcha dan lugar a la colocación de contenedores de forma racional, incluyendo los contenedores amarillos en los alrededores de los centros escolares, por lo que estos centros deben usar los contenedores de la vía pública, salvo cuando el centro se encuentra aislado y no tiene cerca ningún contenedor de uso ciudadano.

Propuesta: creemos que es necesario la mejora de la gestión de las papeleras de la ciudad. Queremos que en todas las papeleras exista la posibilidad de separar selectivamente el residuo, además vemos importante poner ceniceros en las playas y abastecer los patios de los colegios de papeleras de recogida selectiva.

Respuesta: la colocación de papeleras de diferentes fracciones se ha venido realizando en San Sebastián desde hace años, con resultados no muy positivos, ya que la ciudadanía hasta ahora no ha mostrado una actitud de colaboración. Por ello, las papeleras de recogida selectiva de la vía pública reciben residuos mezclados de todo tipo, lo que impide su posterior reciclaje, lo cual, unido a que su colocación supone un coste elevado, hacen de ésta una medida poco efectiva. No obstante, pese a ello se siguen y se seguirán colocando este tipo de papeleras

para recoger separadamente los residuos, pero estudiando bien las ubicaciones y su uso, y uniéndolas a campañas específicas de concienciación.

Por otra parte, desde el Ayuntamiento de San Sebastián no contemplamos la realización de campañas de distribución de ceniceros en las playas, ya que éstas deben ser un espacio de esparcimiento en el que se debe respetar a las personas que no fuman, y por tanto, no promover este hábito, y mucho menos que se depositen las colillas en la arena. Por último, la colocación de papeleras en los patios de los colegios son competencia del Área de Educación del Ayuntamiento de San Sebastián o de los propios centros.

AGUA

Propuesta: solicitamos aumentar la cantidad de fuentes de agua de la ciudad (en el paseo de la Concha por ejemplo) y colocar dispositivos de control de caudal, sensores o sistemas de cierre automáticos en ellos. Solicitamos también renovar las fuentes de los colegios, ya que son muy viejos y pierden mucha agua.

Respuesta: hoy en día hay unas 400 fuentes distribuidas por los diferentes barrios de la ciudad en función de las necesidades y de las redes de distribución de agua existentes en cada zona. En el paseo de la Concha la última fuente (sentido Centro-Antiguo) está ubicada en la Plaza Clara Campoamor. En el resto del Paseo (hasta el túnel del Antiguo) no hay instaladas más fuentes porque las tuberías existentes son redes generales de suministro a las cuales no se puede conectar acometidas (para evitar averías). La totalidad de las fuentes tienen un sistema sencillo de cierre de las mismas mediante pulsador. Es el sistema más eficaz y económico de mantener, si bien un mal uso puede producir atascos en el mismo.

Por otra parte, para la renovación y reparación de las fuentes instaladas en los colegios públicos, hay que realizar una solicitud al Departamento de Mantenimiento y Servicios Urbanos – Edificios, indicando con exactitud de qué fuente se trata, y dónde está instalada. De esta manera, podrá acometerse su reparación a la mayor brevedad.

Propuesta: pedimos no mantener encendidas constantemente las fuentes decorativas de la ciudad, aunque sabemos que tienen un circuito cerrado de agua.

Respuesta: somos conscientes de que mantener las fuentes decorativas de la ciudad supone un gasto energético y de mantenimiento, que procuramos minimizar, aunque el gasto de agua no existe ya que se trata de un circuito cerrado. Sin embargo, conviene apuntar que estas fuentes no cumplen únicamente un papel estético, ya que aportan a la ciudadanía, e incluso a la fauna urbana, beneficios que se deben tener en cuenta, como refrescar el ambiente, generar un ambiente acústico agradable, o reducir el estrés de los viandantes.

CAMPAÑAS DE SENSIBILIZACIÓN A LA CIUDADANÍA

Propuesta: para reducir la huella ecológica de la ciudad creemos que es importante realizar campañas de sensibilización en torno a los siguientes aspectos:

- Los residuos, para aumentar la cantidad de residuo recogido en la clasificación selectiva.
- En efecto, la recogida selectiva en la ciudad de San Sebastián está ahora en el 37% (datos del año 2018), por lo que es prioritario aumentar este porcentaje, para ello, además de la información que se está facilitando desde el Departamento de Medio Ambiente, se está preparando una campaña concreta para fomentar la separación de residuos entre la ciudadanía. Esta campaña se pondrá en marcha a finales de 2019 y se prolongará, al menos, durante 2020 y es una de las partidas seleccionadas por la ciudadanía en el proyecto de Presupuestos participativos.
- Consumo de alimentos locales y de temporada, para impulsar el consumo sostenible.
- Precisamente, desde el departamento de Medio Ambiente, en colaboración con Fomento de San Sebastián y Fundación Cristina Enea, se ha elaborado una Estrategia Alimentaria para la ciudad que busca este objetivo concreto.
- Para reducir el consumo de energía, dar a conocer comercializadoras que contratan energías renovables, para apoyar económicamente posibles instalaciones de energía renovables....
- Aunque se trata de un objetivo que compartimos, legalmente el Ayuntamiento de San Sebastián, no puede mostrar preferencias, ni mucho menos publicitar, en favor de una compañía privada o otra.
- Para fomentar el uso de bolsas biodegradables o de tela.
- El Departamento de medio Ambiente está colaborando activamente con otros colectivos sociales para la utilización de bolsas reutilizables, ya que desde la perspectiva de la sostenibilidad son mucho más efectivas en la lucha contra las emisiones de gases de efecto invernadero, que las bolsas biodegradables, y sobre todo que las bolsas de plástico de un solo uso.

- Para impulsar el correcto uso de las duchas de las playas y para evitar que la gente eche residuos al mar.
- Las playas de la ciudad están gestionadas bajo el sistema Emas, lo cual permite una gestión mucho más eficiente de los recursos, incluida el agua dulce de fuentes y duchas. No obstante, coincidimos con la necesidad de mejorar la comunicación y sensibilización en este aspecto.

Propuesta: apoyar económicamente a los baserritarras de Donostia, facilitando puntos de venta de sus productos.

Respuesta: éste es, precisamente, uno de los objetivos de la nueva reurbanización que se ha hecho en el Mercado de la Bretxa, para poder así facilitar las condiciones de los vendedores de producto de cercanía y temporda, algo que aborda la Propia Estrategia Alimentaria de la ciudad.

ENERGÍA Y CONSUMO ENERGÉTICO

Propuesta: proponemos cambiar el contrato de energía eléctrica del Ayuntamiento por una compañía que certifique que su energía es 100% renovable (como Goiener, Holaluz...) y en los casos que la instalación lo permita, colocar placas fotovoltaicas en los tejados de los edificios municipales.

Respuesta: la energía eléctrica que se compra en la actualidad es certificada, 100% renovable. El Ayuntamiento de San Sebastián lleva 15 años instalando equipos para la producción fotovoltaica, siendo estos dos últimos años y en los próximos, en la modalidad de auto-consumo, línea de trabajo con la que se pretende seguir.

Propuesta: colocar bombillas de sistema led en todas las farolas de la ciudad.

Respuesta: todas las nuevas instalaciones de farolas que se realizan en la vía pública de la ciudad ya utilizan lamparas LED, y progresivamente se van sustituyendo por equipos LED las existentes.